

Hitzaurrea

Zenbait jakintzaren heldutasun-maila, dibulgazio kaskar batean geratu gabe generalizaziorako balio duten lanak egiteko gaitasunaren araberakoa da, neurri handi batean. Zeren eta jakintza —bere dimentsio osoan— publiko zabalaren esku jarri ahal denerako, alde zurratik oso ahalegin handia egin behar izan baita.

Ez da nahikoa merezimendu handiko ikerlanak egitea. Lan horiek, gainera, aztergai osoa, edo ia osoa, hartzeko baldintza bete behar dute. Hartara, gogoeta-gai bati buruz eskura dagoen informazio-mailak ia erabatekoa eta uniformeak izan behar du gutxienez.

Gainera, halako lanak bi noranzkotan egon behar du landuta: kanpoaldera, ezagutza txertatzen deneko diziplinaren barnean sendo integratzea ahalbidetzeko, ezagutza jakin baten esparruan; eta barnealdera, errealitate konplexuak beren oinarritzko interpretazio-parametroetara murrizteko —hobeto esanda funtsezko parametroetara murrizteko—, abiaburu izan daitezzen, hau da, ezinbesteko ezagutza-multzo adostuak izan daitezzen.

Bestalde, Eusko Ikaskuntzaren eginkizuna —eginkizunetako bat esan dezagun—, bere ikuspuntutik jakintza-gabezia gutxi asko agerikoak beteko dituzten azterlanak sustatzea da, hiritarrek nolabaiteko ezagutza izan dezaten beraientzat desiragarri diren arloetan, betiere kontuan hartuta ezagutza-maila desiragarria funtsezko sintesia dela, hau da, hizpide duguna, edota zientzia-ezagutza purua talde-prestakuntzarako tresna bilakatzen duena.

Ildo horretatik, azken urteotan aldaketa harrigarria gertatu da gure gizartearen kontzientzian, gure kultura-, arte- eta are zabalagoa den historia-ondareari dagokionez. Ondarearen kontserbazioaren arloan erakundeak garatzen ari diren politika bera dugu aldaketa horren lekukorik onena. Hala Eusko Jaurlaritzak nola Foru Diputazioek gogo handiz egin diote aurre hiritarren sentiberatasunera hurbiltzeko konpromisoari, eta baita horren buru izatekoari ere.

Horren emaitza nabarietako bat da, azkeneko urteetan zehar Autonomia Erkidegoko hiri gehienetako (ez bada guztietako) Gune Historikoak Interes

Kulturaleko Ondasun izendatzea. Baina izendapen horrek, administrazioaren ikuspuntutik dimentsio guztiz zehatza duenak, ez ditu haren ahalmen guztiak garatzen, baldin eta izendapenak dakarrena egoki zabaltzen ez bada.

Zabaltze horren zeregina ez da arau baten exigentziari edo ukiturik daudenak jakinaren gainean jartzeko beharrari erantzutea bakarrik. Aitzitik, plano orokorrago bati erantzun nahi dio, hiritarren ezagutzari. Eta eskakizun hori du helburu, hain justu, Eusko Ikaskuntzaren lan honek, lerro hauek atariko dituenak.

Atlasa bi ataletan banatu da. Batak Bizkaiko Jaurerriko hiri guztiak hartzen ditu, Bilbo izan ezik, aparteko atala eskaintzen baitzaio. Hiriei dagozkien atalen azalpena oso antzekoa da guztietan: zenbaitetan iturriak eta horietatik datozen ezagutza dira muga, eta bestetan, foru-hiri bakoitzak historian zehar izan duen protagonismo desberdina. Dena den, lehen atal honen emaitza bereziki homogeneous da, hala baitagokio.

Bizkaiko hiriek une jakin batean izandako planoen proposamenak lortu ditugu, lehen aldiz, hain zuzen, XV. mendearen amaieratik XVI.aren hasierara bitartekoak. Halaber, horien arteko harremanak, hierarkiak... argitzen dituzten azalpen orokor bat ere izan dugu. Azkenik, oinarritzkoa baino gehiago den bibliografia baliatu dugu, egokiro hautatua, izaera orokorrekoa, eta tokikoari buruzko gehigarria duena. Esan beharra dugu hori guztia azalpen-egitura komun baten barruan dagoela kokatuta.

Bilboko hiriari buruzko ikerlanak aparteko tokia hartzen du, nahiz eta, kasu askotan, Bizkaia osoko bizimoduaren eta ekonomiaren paradigma gisa aurkezten den. Azterlan horretan, Don Diegoren Hiriari buruz egiten den Erdi Aroko aipamena XVI. mendera arte luzatzen da, Kontsulatuaren sorrera arte.

Bien artean, gure ustetan, aurreikusitako helburu guztiak betetzen dira, zientziamaile, zabalkunde-gaitasun eta funtzionalitate handiz lortu ere. Ziur gaude ahalegin garrantzitsu honen jasotzaile zaretenok bertan bilduriko balioak aintzat hartzen jakingo duzuela. Gu, halere, pozik gaude lan hau egiten eta argitaratzen lagundu dugulako.

Lana, ikerketa-lanerako Eusko Jaurlaritzak eta argitalpenerako BBK-k emandako laguntzari esker gauzatu da.

Aingeru Zabala
Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko Lehendakariordea